

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko apirilaren 23a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Lizarra • Lizarra ikastolak irrati bat jarri berri du martxan

Maider Igoa eta Antton Harinordoki • «Nafarroaren Eguna kanpari begira finkatutako hitzordua da».



• OSKAR MONTERO

Iragana

eguneratzen

Aurten Julian Romano Ugarte lizarratar konpositorearen heriotzaren mendeurrena denez, Nafarroako hainbat musikazalek ekitaldi ugari antolatu dituzte haren omenez. Egingo diren ekitaldien artean aipagarrienetakoa igande honetan Baigorri Nafarroaren Egunaren barnean aurkeztuko den dantzaldia izango da. Dantzaldi horrek XIX. mendeko dantzak ezagutarazteko balioko du, antolatzaileek, galdutako dantza, erritmo, urrats eta jantziak berreskuratu baitituzte ekitaldi horretarako.

Lizarra •

Lizarra Ikastola irrattia

FMko 106.7 uhin frekuentzian aurki daiteke sortu berri duten irrattia

Lizarra Ikastolak irrati bat jarri berri du martxan. Goizeko bederatzietatik iluntzeko zortziak bitartean Lizarrako biztanleek euskara hutsean egindako saioak entzun ahal izanen dituzte.



Lizarra ikastolako DBHko ikasleek euskarazko irratiak gozatzeko parada dute.

• MIKEL SAIZ

1 06.7 LIZARRA IKASTOLA irrattia. Zuen irrattia». Horixe da egunero behin eta berriro sortu berri den irrati horretan entzun daitekeen leloa. Tarteka-marteka musika, elkarrizketak, ipuinak eta bertzelako irratsaioak xartzatzen dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak aritzen dira goiz-goizetik iluntzen duen arteraino hitz-jario etengabe, betiere musika saio luze eta askotarikoak eskaintzen. Lan hori ondo egin ahal izateko Uxue Arroiabe irakaslearen laguntza izaten dute 13, 14 eta 15 urteko neska-mutikoek. Haren hitzetan, irrati berriaren xedea euskaraz komunikatu ahal izatea da, alde batetik, eta irrattia ikasgai bat izatea, bertetik. «Ikasteko baliabide bat da irrattia, eta, bertzelako ikasgaien modura, irratiak paper garrantzitsu

bat joka dezake ikasleen hezkuntzaren barnean», esan digu Arroiabek.

Ilbeltzean, negu hotzean, jarri zen martxan pitinkapitinka irrattia, eta Korrika egunean saio berezi bat egin bazen ere, joan den astean egin zen estreinako saioa. Izar Martizek, Miren Roldanek, Maite Urrak, Alazne Esparzak eta Urko Gonzalezek egin zuten. Orotara lau talde osatu dira DBHko bigarren, hirugarren eta laugarren mailako ikasleen artean, eta talde guztietako kideak ariko dira saioak prestatzen.

Ikasleen erranetan, oso esperientzia berria, polita eta interesgarria izaten ari da irrati uhinetan hitz egitea.

Irratiaren prestaketari dagokienez, ikastolako gurasoak arduratu dira irrati gelaren atonketaz. Hala, intsonorizatzeko eta oihartzuna galarazteko beirazko zuntza eta arrautza kaxa anitz behar izan dituzte. Antena lineala da oso eta uhin frekuentzia Lizarraldeko herrixketaraino ailegatu ahal izateko bertzelako antena bat jarriko dute berehala. Irratiaren osagai teknikoek zerrenda hauxe da:

hedagailua, amplifikadorea, CDA, pletina bikoitz bat, pletina sinple bat, bafleak eta nahasketa mahaia. Lizarra Ikastolak 500.000 pezeta behar izan ditu irrattia martxan jartzeko, eta urtean bertze 50.000 pezeta behar izanen ditu mantenimendurako. Etorkizunearan informatiboak, elkarrizketak, musika saioak, haurrentzako programak eta lehiaketak egiteko asmoa dute ikasleek, eta horretarako telefono baten premia dutela ere azaldu digute.

→ Kristina Berasain

Zangoza

Ehoziri Egileen II. Jardunaldia egingen dute bihar herriko arkupeetan

EHOZIRI EDO ENKAJEAREN hiriburu izanen da Zangoza, bihar, Ehoziri Egileen II. Jardunaldi antolatu baitu herriko Etxekoandreen Elkarteak. Ehoziri-lanak azken urteotan izan duen gorakadak bultzatuta egin zuten duela bi urte lehen bilkura Zangozako ehoziri egileek, eta aurten berriro egitea erabaki dute. Hirurehundurik gora ehoziri egile elkartuko da Zangozan bihar, Nafarroa osotik ez ezik, Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Kataluniatik etorriak, besteak beste.

Elkarretaratzea goizeko 09:30etan hasiko da; enkajerak 13:30ak arte ariko dira lanean herriko arkupeetan (Klaustroan euria egiten badu), eta antolatzaileek ehoziri-lan polit eta ikusgarrienak sarituko dituzte. 14:30etan, bazkaria egingen dute kide guztiek, Yamaguchi hotelean.

«Etxekoandreen Elkartearen sortu zen enkajeren taldearen ideia. Hainbat urte daramagu ikasten, eta, duela bi urte, jardunaldi antolatzea erabaki genuen, Lizarrakoek antolatutako bilkuran egon ondoren», azaldu digu jardunaldiaren antolatzailer Mirentxu Zufiagak.

→ Eburne Elizondo

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Leku tristeetan irrattia beti piztuta edukitzen dute. Isiltasuna zama ikaragarria bihurtu den tokietan ahots urrun eta, maiz, gaizki sintonizatuak bilatzen dituzte. Ez da erraza gauz ibiltzen den taxia baino gauza ospelagorik imajinatzea.

Txakurra bezain lagun ona omen irrattia. Erien entretenigarri, bakarrik daudenen kontsolagarri, urrun horietako berriez jabetu nahi dutenen mezulari leiala. Irratien hariak darabiltzatenak ere jakitun dira daukaten ospe eta sinesgarritasunaz. Tonuan nabari zaie: alaia eta oihukaria egun argiz, konfidentziala eta xuxurlaria izaten da gauzez. Gauekoak, hala behar du, bai, esatariak hain gogoko dituzten infernuetara jaitsiko badira. Sekulakoak entzuten direla esan didate. Berdin dio. Ez da deus. *Fast food.*

Aingura

Nik astean behin pizten dut. Igande gauean. Atsegin zait bidaiarien kontakizunak entzutea, eta tamainan datorkidan saioa topatu nuen aspaldi. Ez musika, ez oihu, iritzi eta ikasbide zuzen gutxi... Istorio soilak, azken batean. Saioaren tituluan *aingura* hitza agertzen da, eta ezin uka hitz egokia denik, aingura jasotzeko beharrak ekartzen baititu istorio hasierak eta aingura botatzeak amaiera eta hasiera berriak. Jende adina ahots etortzen zait uhinekin batera: hilabeterako abiatzen diren turistak, etengabe «zerbaiten bila» errepikatzen dutenak, urtetan sosegurik aurkitu ezinik dabilzanak, hippiak, nabigatzaileak, zientzilariak, misiolariak, idazleak...

Ez diet egirik eskatzen, aski dut istorioak entzutearekin. Eta ez da batere zaila izaten, bidaiaria oso entzule ona izaten baita normalean,

eta arront ergela ez den edonork erantzun luzea ematen dio transzendentzia tonurik gabe egindako galderari. «Zer dugu?», konparazio batera.

Etxe gutxitan izaten da beheko sua, ongi isolatuak izaten ditugu haizea sar ez dadin, urrun xamar joan behar izaten dugu kilkerak entzuteko edo ihintz bota berriaz bustitzeko. Ez da munduan, ordea, burua berotzea baino gauza errazagorik, eta inor ez da libre, ezta aingura aspaldi bota zuena ere, kontakizun batek begiak sutara eginik eta gogoia ozeanoaren erdian duzula jar zaitzake ixtant batean.

Egun batean norbaitek erabaki zuen ez gurela ipuinik behar eta aingura bat jarri ziguten eskuetan. Horregatik zozotzen naute istorioek. Bakarrik nagoelarik hatza ahoan sartuta lokartzen naiz.

Bera ● Gas naturalaren berotasunean

Bera eta Lesakako biztanleek erregai hori baliatu ahal izanen dute

Bera eta Lesakako biztanleek gas natural sarea izanen dute udatik aitzinera etxean hala nahi izanez gero. Erregai hori mendialdera ekartzeko lehen saioa da, eta Gas Navarra enpresak egin du urratsa.



Beran eta Lesakan gasa sartzeko lanetan ari dira egunotan.

● JON ABRIL

HORNIKUNTZA SAREA AITZINATU samarra baldin badago ere, oraindik zenbait hilabete beharko dira gasa etxetara iristerako, baina dagoeneko lehenbiziko urratsak eginak dituzte. Beran, zorua berrizatzeko herri guztian egiten ari diren lanak aprobetxatuz, gas hornikuntzarako hodiak sartzeko ari dira auzoz auzo. Zorua berritzeko lanak urtarri akaberan hasi ziren Beran, eta, zorua altxatzearekin batera, han-hemenka gas horniketarako hodiak sartzeko ari dira. Ondoren etorriko da auzoz auzo hodi nagusitik etxeraino eramateko instala-

zioa. Hori interesa duen jende kopuruaren arabera egiten da, baina espero dute guztia ere uda honetan bertan paratzea abian.

Lesakara ere ailegatuko da gasa, Berako tenore bertsuan. Joan den asteko ortzegunean, hilaren 15ean, Gas Navarra enpresak bere zerbitzuen

berri eman zuen Lesakako udaletxean. Hemendik aitzinera, hala ere, interesa duen kontsumitzaile ororentzako bulegoa paratu dute Lesakako Bittiria karrikako seigarrenean. Bertan, gas naturalaren inguruko xehetasun guztiak emanen dituzte: instalazioak izanen dituen kos-

tuez, horniketa zenbat kostako den, zein gauzatarako erabili ahal izanen den erregai hori, eta sor daitezkeen bertzelako zalantzak. Baina hori guztia argitzeko ez ezik, zerbitzua jasotzeko izena emateko bulegoa ere izanen da. Beran ere laster paratuko dute gisa bereko bulegoa.

400 familia urte bukaerarako

Lesakan, 56 milioi pezetako aurrekontua du Gas Navarrrak gas naturalaren horniketa paratzeko lanetarako. Urte akaberarako, Lesakan 185en bat familiak gas naturalaz eduki ahal izatea espero dute gas horniketa enpresako arduradunek, eta urte batzuen buruan kopuru horiek nabarmen goitzea espero dute.

Beran, berriz, aurkezpena maiatzaren hasieran egiten dute. Xehetasunik azaldu ez badute ere, Lesakako kopurua baino handiagoa espero dute enpresako ordezkariak Beran, biztanle kopurua aintzat harturik. Hala bada, orotara Bera eta Lesakako 400en bat familiarengana iritsiko da gasa urte akaberarako.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Zorionak, 'Herria'!

2.500. zenbakira ailegatu dela ospatu du **Herria** astekariak bere azken zenbakian. Dena dela, hori dela-eta ateratako gehigarrian aldizkari arduradunek azaldu dutenez, 2.500 baino gehiago dira dagoeneko argia ikusi duten zenbakiak: «Apirilaren 8ko **Herria**, 2.500. zat ekarria, ez zen xuxen-xuxen kontatuz 2.500. a... Bai, gehiagotarat ere helduak gara, ez da dudarik, kasik 300 zenbaki gehiago. Hona bi hitzez zertarik heldu den makurra. **Herria** sortu zen 1944ko azaro erditan. Handik bost urteren buruan, Piarres Lafitte kalonjeak erabaki zuen beste bixtaño

bat behar ziola eman, bereziki lehen orrialdeari, eta hobeki erakusteagatik **Herria** sail berri bati lotzen zitziola zenbakien sailkapena berriz batekotik hasi zuen».

Urteotan ateratako **Herria** astekariaren zenbakiak ekarri ditu aldizkariak gogora: «*Nouvelle serie*, N° 1.; hori zeukan titulua- ren ondoan frantsesez paratua 1950eko urtarrilaren 5ean agertu zen **Herria**-k. Oraikoaren aldean, aise xuhurragoa zen, den bezala erraiteko. Lau orrialde baka- rrik, eta ez zortzi. 1969ko urriaren 2an 1.000.a atera zen. Beste itxura hartua

zuen 500.ari parekatu behar-eta: argazki guti oraino, baina zortzi orrialde. Duela hamar urte, 1989ko apirilaren 20an atera zuen **Herria**-k bere 2.000. zenbakia. Toki ederra egina zitzaion Nafarroa eta Iparraldeko bertularien xapelgoari, finala ondoko igandean jokatu behar-eta Baigorri (Alkat zen xapeldun jalgi)».

Etorkizuneko **Herria**-z mintzatzen da, halaber, aldizkaria: «3.000. **Herria** izanen da astekari idekia: munduari idekia, Europari idekia, Hegoaldeari idekia. Behar-ko ditu idazle berriak, idazle gazteak, geroa segurtatuko dutenak».



urdai
aren
mintzoa

Patxi Huarte

Hemerotekarako.

Aholkuak banatzera nator gaurkoan. Panfletoak airera botatzera, bozgoragailutik kon- signak oihukatzen. Iritzi-iturri diren idazleek gogaitzen naute- lako bihurtuko naiz ni, gaur, iri- tzi-idazle. Ongi hornitua nator: botikan *Subidonpon* kaxa bat erosi eta sei pilula irentsi ditut; estankoa *Alkaline Top Energy* pila potoloak hartu ditut. Pistola bat kargatzen den modu berean sartzeko ditut nik bozgo- ragailu horian. Goazen bada iritzi zeken batzuk botatzera! Gogaitua, zeharo aspertua nago artistekin. Zer dela-eta ibili behar dira egunero-egune- ro nigar eta aieneka?. Artikulu- kadak eta libelokadak bana- tzen? Aintzat hartzen ez ditugulako nonbait. Hemen dago gako. Errekonozimen- duan. Nire adiskide batek erre- konozimendua ez dela bilatu behar esan zidan, ailegatzen bada poztu eta esker ona era- kutsi behar dela, baina bilatu ez. Hau bai dela iritzia izatea! Esaldi bakar batekin neure aurrean ikusten ditudan idazle negartien malkoak eta oihuak ulertzeko tresna bikaina eman zidan. Orain dena ulergarria- goa da. Funtsean hori da kon- tua. Artista hauen benetako helburua ez dela zer edo zer ona edo txarra sortzea, baizik eta beren lanak aintzat hartu behar ditugula, bestela jai, bes- tela, nonbait, lan horiek ez dira borobiltzen: negar-kantarien antzera hasten dira orduan esanez zein txarra den produzi- tzen den guztia eta zein iñozo- ak diren gainontzekoak. Aint- zat hartze hori iñondik iristekotan hurbilen duten jen- dearengandik iritsi beharko dela, aurretik, itxaropenarekin bizi direnez, horrela ez izateko- tan hurbilen duten mundu horri egiten diote eraso. Kontua da ez direla baloratuak sentitzen gixajoak. Beraiek dute peka- tua. Errekonozimendua bila ibiltzeak txotxongilo bihurtzen gaitu, eta kitto. Bai badakit 1917ko iraultzan aitortu zutela «intelektualak» langileak dire- la, baina hortik barregarri gera- tzen tarte handia dago. Egi- dazte kasu: Hemerotekarako idatzi eta sortu. Ehun urte barruko irakurlearentzat idatzi. Zer edo zer erdipurdikoa sortu ezkerro irudikatu haiek aintzat hartuko zaituztela eta punto. Bestela pailazo hunkigarri bat emango duzu hemerotekaren hautsen artean eta zure bizkar irriak izango dira nagusitzen direnak.

Galduak ziren XIX. mendeko dantzak berreskuratu dira

Julian Romanoren partituren gainean osatu da ikuskizun berria

Julian Romano Ugarte Lizarrako konposatzailearen heriotzaren mendeurrena ospatzeko, Nafarroako musikari eta dantzari talde batzuek dantzaldi ikusgarria antolatu dute, XIX. mendean boladan egon ziren dantza batzuk berreskuratuta -gaur egun galduta zeuden dantza horiek-. Honetaz gain, beste ekitaldi ugari antolatu dira musikari honen omenez.

eta gaitrentzako lanak izan ziren: *Vals con variaciones*, *Popurrí de atres estellesses* eta *Variaciones obligadas para dulzaina*, eta, frogatzerik ez badago ere, ia ziurtzat jotzen da Lizarrako Larraindantza ere berak osatu zuela.

Lizarrak XIX. mendean eskaintzen zituen aukera guztiak gainditu zituen Romanok, eta musikarekiko zuen gogo eta behar ikaragarriak bakarrik arrazoi dezake bere musikaren zabaltasuna. XIX. mendeko eboluzioa bere musika heziketarekin bat bizi zuen Romanok, eta, munduko musiketara zabalik, tradizioa eta berrikuntza batzen maisu izan zen gaita jole Lizarratarra. Nafarroako tradizioa, Europako iparraldetik jasotako doinuak eta gaur egungo flamenkoaren analizatzaile jo daitezkeen bolero eta fandangoak, guztiak maisuki batu zituen Romanok, gaur egun ere nafar gaitaren errepertorioa txukun gordetzen duena bezala ezagutzen delarik bere lana.

XIX. mendearen hasieran Lizarran gizarte asaldura handia bizi zen, ia Nafarroa osoan bezala. Napoleonen aurkako guda, aduanak Pirinioetara aldatzearen arazoa, lurralde horretan euskarak inolaz jasan duen atzerakada handiena, eta oro har I. karlistaldia sortarazi zuten arrazoiak bete-betean harrapatu zituzten XIX. mende hasierako lizarratarrek.

Egoera honetan jaio zen bada Julian Romano Ugarte, 1831ko uztailaren 18an Ega ibaiaren ertzean, Espoz y Mina kalean. Roque de Romano eta Ramona de Ugarte euskaldunaren arteko ezkontzaren hirugarren semea izan zen Julian Romano, eta gaztetatik musikarako trebezia ikusgarria erakutsi zuenez, *Pico de angelgoitizena* ere jarri zion norbaitek.

Romanok musika lanak sortzeaz gain moldatzaile lanak ere egin zituen eta, konposatzaile, musika irakaslea eta gaita jolea izateaz gain, piano jole eta biolin jole bezala ere arrakasta handia lortu zuen. Lizarratar honek erabat dominatzen zuen gaita, Rigodoiak, polkak, habanerak, mazurkak, txotisak, jotak, baltsak... denetarik aurkitu zitezkeen bere errepertorioan, lan berriak ere antolatzen ziren besteak. Bere berrikuntzarik garrantzitsuenak banda



Dantzari honen jantzia da iragan mendetik gordetako bakarretako bat. ● OSKAR MONTERO



Dantzari talde bat, 1984an Lizarrako Udalak herriko kontserbatorioari bere izena jarri zion, eta 1990ean Romanoren bizitza eta obra aztertzen zituen arte. ● OSKAR MONTERO

San hil zenetik Julian Romanoren lana ahaztuta egon zen, 84 urte geroago Nafarroako Gaita joleen elkarteak Julian Romano. *Bigarren aldiz* diskoa kaleratu zuen

Nafarroaren Egneko ikuskizuna

Julian Romano Ugarteren heriotzaren ehun urteurrena dela eta prestatu diren ekitaldi ugarien artean garrantzitsuenetakoa bat igandean Baigorri ospatuko den Nafarroaren Egunaren barnean egingo dena izango da.

Baigorri Romanoren lanekin prestatutako ikuskizunaren bi atalak era bateratuan ikusi ahal izango dira. Ikuskizunaren lehen atalean iragan mendean dantzak zeuden hainbat dantza eskainiko dira. Romanok konposatutako piezetatik ateratako dantzak dira guztiak, baina jatorri ezberdinetako musikak eta dantzak ikusiko dira bertan.

San Andres Lizarrako patroilaren martxarekin hasiko da ikuskizunaren atal hori. Dantzariak agertokira irteteko rigodon bat dantzatuko dute, eta segidan iragan mendean modan zeuden hainbat dantzatatik gure egunotaraino hobekien iritsi den pieza bat sartuko dute.

Lehen atalaren hasieran gaur egun ezagunak diren dantzak izango dira nagusi, edo gaur egun ezagutzen diren dantzen antzekoak behinik behin. Balsaren atzetik porrusalda eta jota berezi batzuk eskainiko dituzte eta gero txalo izeneko musika mota bat, gaur egungo arin-arinarekin lot daitekeena nolabait. Horren atzetik

arte. Disko hau plazaratu ostean, 1984an Lizarrako Udalak herriko kontserbatorioari bere izena jarri zion, eta 1990ean Romanoren bizitza eta obra aztertzen zituen

ugari bota behar izan dute etzi Baigorri aurkeztuko den saioa prestatzeko.

Romanoren musikak tradizio ezberdinetako elementuak jasotzen dituenez, Nafarroan dantza horiek galdu izanak ez zen erabateko galera izan, eta Katalunia aldean iraun duten zenbait urrats eta erritmo ikasirik koreografia berriak egin dira Romanoren partituren oinarri hartuta. Dantzaldi hauetarako, San Lorentzoko dantzariak, Txantreako errondaila bat, Baztango dantzariak eta Balterako banda izango dira, Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako hainbat gaita joleekin batera.

Denboraren poderioz galdutako dantzak berreskuratzeaz gain, xehetasun guztiak

liburu bat ere argitaratu zen.

Aurten bere heriotzaren mendeurrena ospatzen dela eta, Nafarroako Gaita joleen elkarteak ez zuen Romano ahaztu nahi izan eta urte hasieratik hainbat ekitaldi prestatzen dihardute, beste zenbait talderekin batera Julian Romanoren mendeurrenako ospakizunetarako elkarteak sortu zutelarik.

Urtean zehar hainbat ekitaldi egin dira jada, eta beste asko dituzte programaturik. Igandean honetan bertan, Nafarroaren Eguna ospatuko da Baigorri, eta hango ospakizunen artean Julian Romano Ugarteren errepertorioari errepaso bat emango diote XIX. mendeko dantzak berreskuratuz. Dantza gehienak gaur egun ezagutzen ditugunak edota antzekoak izango dira, baina ez dira faltako iragan mendean dantza-urte arren guranaino iritsi ez diren dantzak ere. Ekitaldi honetan aurkeztuko diren dantzen % 80 Romanok konposatutako piezak dira eta gainerakoak bere errepertoriotik hartutako moldaketak. Proiektu honetan sarturik dauden pertsonak izerdi

- Orain berreskuratuta
- ko dantza asko bekatutzat jotzen Elizak bere garaian, dantza lotuko zatiak baitituzte
-
- Katalunia aldean gordetzen diren zenbait urrats eta erritmo ikasirik, koreografia berriak egin dituzte, Romanoren partiturak oinarritzat hartuz
-

kontutan hartu dituzte antolatzaileek, eta dantzarien jantzetan ere berrikuntzak izango dira. Arroparekin ere iragan mendeko tradizioa berreskuratu nahi izan da, eta lan zaila gertatu da gainera. Romanoren pieza hauek gau-jai pribatuetan jotzen zirenean gehienetan, garaiko debekuak zirela eta; hala, jai horietara joaten zen jendea ez zen nolana hikoia izaten, eta, jakina, garai hartan kalean erabiltzen zen arropa ez da dantza hauei egokitzen zaiena. Jantzi horien berdin-berdinak ezin zirenez berreskuratuta, antolatzaileek zenbait arau eman zituzten eta taldeek arau horiek kontutan hartuz euren jantzia prestatu dute.

Igandean honetan Baigorri izango den ikuskizuna Blasterin emango dute amaiazaren 9an eta Buñuelen 22an.

Baina Romano urtea ospatzeko beste hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte mendeurrenako ospakizunetarako arduratu den elkarteak kideek. Alde batetik, Julian Romano Ugarteren bizitza eta obra ezagutzera emateko, elkarteok erakutsita ibiltari bat antolatu dute. Merindade buruetan eta gaita tradizioan beste herri batzuetan izango da erakusketak, eta Romanok eta bere ikasleek erabiltako gaitak, ahoko piezak, tanborrak eta beste instrumentu batzuk erakutsiko dira herri bakoitzean aste batez, Nafarroan gaitak izan duen eboluzioa azaltzeko beste hainbat tresnaz gain.

Kontzertuak eta hitzaldiak ere hasiak dira dagoeneko, eta Romanoren heriotzaren mendeurrenaren egingo diren lan ugariak urtea amaitzarekin bat ez ahazteko asmoz, disko bat ere kaleratuko dute elkarteok arduradunek. Lan honetarako kolaborazio ugari izan dira: alde batetik, Txomin Mujikak, Elgoibarko bandaren zuzendariordeak, Romanoren hainbat lanen elkarketa berezi bat prestatu du, eta Elena Fraile konposatzaileak mendeurrenaren gaia osatu du. Bitxikeria Tuterako *Nomadas* taldearen eskutik etorriko da musulmanek, ijitoek, Erriberako jendeak... osatzen du taldea, hauek ere bere tokia izango dute diskoan.

Mendeurrenaren oinogarri gisa monumentu bat ere eskaini nahi diete elkarte honetako kideek Romanori. Lizarrako udalaren behin betiko onespenez jasoz gero, abenduaren 8an Espoz y Mina kalean dagoen aisialdirako gunean harrizko monolito bat jarriko da Romanoren omenez.

Interneten egin duten saioa ere alpatzekoa da; oraindik ez dago sarean XIX. mendeko pertsonaia honen bizitza, baina Lizarratar honen lanen miresleak web orri bat osatzen ari dira, XXI. mendean ere Romanoren berri izan dezaten.

Pertsonaia honi historian merezi duen toki egiten zaion neurrian, iragan mendeko zenbait ohitura berreskuratze bidean izango gara. Gainera ekitaldiak egingo diren herrietako jendearen parte hartze aktiboa bultzatu nahi dute antolatzaileek, azken finean gaitazale eta, oro har, musikazale nafar guztien elkarteak ere bultzatzen delarik.



Donezteben egindako antzezaren une bat. ● OSKAR MONTERO

→ Asier Legarda

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Bazilio Joannategiren lanak

Baxenafartarra; Saran eta Altzain apezta eta Beloken eta Lazkaon beneditarra; euskal izkiriatale mardo, hagiografikoak izan ziren utzi zizkigun gutxiz gehieneko lanak



PETTAN JOANNATEGI ISTURIZKO Xelaitoan sortu zen 1837.eko martxoaren 17an; 1862.ean apezta eta Sarako bikario edo apez laguntzaile arizan zen lau urtez, harik eta 1867.ean Altzaira erretore joan zen arte, euskal idazlea ere zen Frantzisko Laphitzek utziriko arta bere gain hartze- ra; edozein modutan ere, fraide behar zuela iritzirik, 1878.eko azaroan La Pierre- Qui-Virera hurbildu zen orden beneditarrean fraidetzeko, orduz geroz, eta pontekoa erdeinatuz, Bazilio izanen zelarik. 1875.ean ireki berri zen Belokeko abadetxean sartu zen non fraidegaien moldatzaile ihardun zuen, baita predikalari ere 1890-1894 urte bitartean. Emile Combes Frantziako lehendakariak onarturiko lege laizistak zirela eta, 1903.era Oltzara etorri zen Belokeko fraidegai guztiekin. Iruñerrian ordea, labur igaro zuten, maiatzetik abuztura arte soilik, orduan Idiazabalera aldatu baitziren, handik hiru urtera helmuga Lazkaon betikoz finkatzeko, aurretikago karmeldarren etxea izan zen berean. Gipuzkoako herri hartan zendu zitzaigun Joannategi 1921.ean, bi urte lehenago mahatsondoak inausten ari zela erori, burua abarrikatu eta nahikoa ezindurik geratu ostean.

Garaiko euskal inteligentziaren kideak ezagutu zituen, eta Azkuerekin batera Akademia sortzeko ahaleginetan aritu zen; hiztegiak kezkaturik, aldi oro aditzen zituen hitz berriak betiere soinean zerman kalerrean apuntatzen zituen, hortaz, egun ezezaguna zaigun hiztegiaren lanabesak Azkueri igorri zizkion, Lekeitiokoak profita zitzala, alabaina, ez dirudi bizkaitarrak ezagutu egin zituenik: «Un tercer diccionario manuscrito de importancia me envió el P. Joannateguy, que desgraciadamente no llegó

a mis manos». Bazilio anaia bereziki kezkatzen zuen bigarren auzia euskal liburu zaharren bilteza izan zen, eta hura zela eta, Van Eys, Dodgson, edota Urkixo liburuzaleak ezagutu zituen.

Joannategi euskaraz izkiriaturik utzi zizkigunenez de- nez bezanbatean, desagun hagiografia izan zela landu zuen ia gai bakarra. Altzain zegoela, 1876.ean, *Ehun bat sainduen bicitcea* atera zuen Baionako Lasserrerenean, 439 orrialdeko lan gotorra. Lan honen bigarren aldaera zuzendua eta guztiz emendatua Beloken zegoela egin zuen, *Sainduen bizitza*, betiereko Lasserre baionarrean, 1890.ean 537 orrialdeko lehen zatia, eta 1900.ean 436 orrialdeko bigarren zatia. Vinsonek zekarren arabera, *Sainduen bizitza* honetatik atera Sienako Katerinaren bizitza italerara itzulirik 1891.eko maiatzaren 5ean agertu zen, *La vergine benincasa S. Caterina da Siena*, hango argitalpen erlijioso batean.

Fraide sartzeko zegoela, komentuko bizitzari buruzkoak ziren *San Benoaten bicitcea*, eta Ligorioko Alfontso Mariaren lanaren laburpen moldatua den *Ceruraco bideric errechena* atera zituen betiko tokian 1887.ean -lehendabizikoa bigarrenez inprimatu berri da Inazio Mujika Iraolak apailaturik Euskal Editoreen Elkartek ateratzen duen Klasikoak saillean 82 zenbakiarekin-. Handik zazpi urtera berriz, *Bihotz sacratuaren hilabeteo escu-liburua* inprimarazi zuen, 335 orrialdeko lan guritsua ere dena.

Joannategi orduko hainbat aldizkako argitalpenetan idatzi zuen, bereziki Baionako Lasserrerenean ere moldakatzen zen *Fedeco propagacioneco urteca-*



ria edo fedeaaren propagacioneco berritac urteca ematen dituen izenekoan, «publication bimensuelle depuis septembre 1877, avec portraits, vues, dessins et cartes lithographiés», eta frantsesez ateratzen zen Annales de la propagation de la foi lanaren itzulpen-

*egokipentzat har daitekeena; Maisonnave kalonjeak aintzinaturik eta Baionako kalonje ohorezkoa zen Larrouse abadeak jarraiturik, itzulpenak Larresoron irakasle zegoen Arnaud Abbadie apezak egin zituen, 1891.era arte bederen, bada ordutik aitzina huraxe Joannategiren ardura izan baitzen. Aipatu Bitiriñeko Arnaud Abbadiez (1843-1916) esan behar da *Eskualduna* aldizkarian agertzen zen «Laborarier» sailaren egilea zela, abelkuntza eta lurgintza izkiriagai zuen saila alegia; Abbadieren idazkeraz, bestalde, Villasantek honela zioskun: «...su estilo es sin brillo pero preciso, quiere realizar una revolución en el país a base de manejar los procedimientos pero sin romper con la tradición»; Abbadieren beste lanak ere 1890.eko *Aphezak soldado* -Baionan, Lasserre etxean, eta berrikiago ere Euskaltzaindiaren *Euskara-n Xarritonen eskutik*-, edota 1892.eko *Hazparneko kalbarioa* argitalpenean *Jesus Kurutzeari litzatua* predikua.*

Joannategirengana arraitzuliz, frantsesez tajutu lanak ere eman zituen argitara, esate baterako, 1877.eko urtarrilaren 31ko *La semaine de Bayonne-n* agertu zuen *Article sur la vie des saints*, edota Akizeko *L'Adour. Journal de l'Appel au peuple* egunkarian 1897.eko ekainaren 12an ateratako *Lettre d'un paysan basque en traitement aux boues de Dax à ses parents en souletin avec traduction française et notes*.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Gizon izateraren mahukak

SENIDE ARTEKO OTORduetan, beti ateratzen da gauza bitxiren bat, eta lehengo batean *El chollo de ser hombre* (Gizon izatearen mahukak) izeneko orritxo bat ekarri zuen norbaitek, Gipuzkoa aldetik edo. Oso ergela da, iruditeria eskasekoa, eta batez ere, exenplu konkretuak falta dituena.

Baina, nere txoko hau tragiko samar bihurtzen ari omen da, eta tarteka ergelkeria polit batzuk sartzea ere ongi etorriko omen litzake, hala esan ditate marketinean aditu direnek, eta gaurkoan, kontu salgarri horien zakuko izatea nahi nuke nerea ere, bere estilo xixtrin eta guzi:

«Emakumea aldarean ipinten baduzu, eta gaitz guziatik errukiz babestu, funtsean, zeure intenzio matxista gordea azaleratu nahi duzulako besterik ez omen. Etxean gelditu eta sukaldeko lanak egiten badituzu, neskame txintxotua deituko dizute mahaxiz. Eskuak bete lanarekin bazabiltza, ez duzula betarik emakumea goxatzeko; lanik egiten ez baduzu, emakumearen kontura bizi zaren alferrentzi zuritzat joko zaituzte.

Emakumeak lan asper eta betibatekoa badu, eta gainera soldata urrikoa, esplotazio lotsagarria da, jakina; baina, gizonak beti lan bera eta aspergarria egiten badu, muinak dantzatu eta beste zerbait duinago bilatu ez duelako, zea!

Zeure borondaterik onenaz piropo polit bat atera bazaizu, eraso sexualtzat hartuko dizute, eta juez batek asmatuko agian zure borondate gaiztoa; ez badiuzu bere edertasun berezirik adierazten, berriz, matxismoaren betiko indiferentzi umilatzaile horregatik izanen da.

Negar egiten baduzu, ume mainosatzat joko zaituzte; eta ez baduzu malkorik isurtzen, berriz, zinezko sentimendurik gabeko zerri potroaunditza. Gizonak zakarraldiren batean emakumea jotzeko keinurik egiten badu, heriotz mehatxu

garbia izan dela erakutsiko dio abokatuak; emakumeak gizona amargatzen, pozoitzen edo akatzen badu, berriz, jakina, bere buruaren defentsan beti.

Gizonak erabakiren bat hartzen badu emakumeari esan gabe, matxista fatxa delako noski; baina emakumeak erabaki bera gizonari esan gabe hartzen badu, liberatutako emakume den sinale on. Gizonak eskatzen badio emakumeak nahi ez duen zerbait egiteko, dominatu nahi hutsagatik izanen da beti; baina, emakumeak eskatzen badio gizonari, zinezko demokrata moderno izaten erakusteko.

Arropa aprobez nabarmendutako alderdi kilikariak atseginez eskertzen badizkiozu, obseso zikina zu; eta ezikusiena egiten badiezu, mari-koi erreprimtua edo auskalo? Beren gorputza pittin bat animatzen eta apaintzen duten emakumeak gustatzen bazaizkizu, ez zara inondik ere gurasoen kontura bizi diren gaxte bohemi usteko horietakoa, baizik eta eme itxura pollita bilatzen duzun betiko matxista klasikoa.

Lore xorta gorri bat erregalaten badiozu emakume bati, seguru haren hankarteko larrosa duzula gogoan. Eta ez badiozu deus erregalaten, detalle emeak batere estimatzen ez dituzun astazakila zu.

Atxoak buruko mina badauka, zinez nekatua dagoelako izanen da beti; baina, gizona buruko minak jotzen badu, gezurra: atxo maite ez duelaiko sintoma besterik ez. Larru grinak maizegi jotzen bazaitu, biziosoa zarelako; eta behar den grinarik erakusten ez badiozu, seguru baduzula keridaren bat auzoan...

Ez dute ez, lan erraza, emakumeak eta gizonak, elkar engainatzeko. Sekulan ez dute hala izan. Halere, inoiz baino ikasiago eta libreagoa ote da, ezkontz dibortzioen konparazio, inoiz baino aisago ateratzeko afanean, inoiz baino jende gehiago kartzelan sartzen duen gizartea?

Ziria

• Motxorrosolo •

Inkestak

AURREKO INKESTARENEAN, SARDEEN GORABEHERA IZAN ZEN. HONETAN, NORABIDE BAKARREKO MEZUA ZABALTZEAN, INKESTAREN DATUEN ORDEZ, TXOSTENA BALIATU DUTE. SANEDRINAK JAKIN BAKI DATUAK MANEIAZTEN, UNIBERTSITATEKO EUSKARA DELA ETA, HARRIA EZ DA OZTOPO IZAN, LEGARRA IZAN DUTE BERE ALDE. TO NORMALIZAZIOA.

Maider Igoa eta Antton Harinordoki

Basazea elkarteko kideak

«Nafarroaren Eguna kanpoari begira finkatutako hitzordua da»



● BOB EDME

soslaia

Maider Igoa Basazea elkarteko lehendakaria da eta Antton Harinordoki Administrazio Kontseiluko kidea. Basazea Baigorriko kultur taldea duela hogeitatu urte sortu zen eta lehentasuntzat jo zuen euskal kultura bultzatzea haranean. Urteko eginkizun garrantzitsuenak du udaberriko hitzordu kulturala antolatzea, eta, batez ere, Nafarroaren Eguna.

Beste zenbait elkartetako kide anitzekin batera, Igoak eta Harinordokik kulturaldiaren antolakuntzan parte hartzen dute azken urteotan. Datorren igandean lanari ekinen diote milaka laguneri harrera egiteko Baigorri. Izan ere, gero eta jende gehiago biltzen da egun honetan eta elkarteko kide guztien parte hartzea beharrezkoa da eguna antolatzeko.

Alabaina, beren eginkizuna ez da Kulturaldira mugatuko. Izan ere, elkartearen biltzar nagusiak erabaki du aktibitateak antolatzea urtean zehar. «Egitura berria sortu dugu, animazio batzordearekin eta batzorde teknikoarekin, eta askoz egokiago izanen da lana zatikatzen», adierazi zuen elkarteko lehendakariak.

■ Kulturaldi aberatsa antolatu arren, Nafarroaren Eguna izanen da hitzordu garrantzitsuenak?

Antton Harinordoki: Ez da dudarik hori dela egun jendetsuena eta ezagunena, horrek eskatzen duela lan gehien eta horrek duela arrakasta handiena. Nafarroaren Eguna gehiago itzulia da kanpoko jendea buruz. Pozten gara ikusiz Baigorriko jendeak gero eta gehiago hartzen duela parte hitzorduan. Hala ere, hitzordua kanpoari begira egina da, Baigorri eta Basazea ezagutarazteko. Kulturaldia, berriz, gehiago hemengo jendea itzulia da. Bertako jendea nahi dugu hurbildu, trukeak bultzatzeko eta eztabaidak bultzatzeko.

→ Lutxi Fourcade

■ **Lehen aldikotz, aste kulturala antolatzeko ordez Baigorriko haranean, kulturaldia antolatu duzue. Zergatik horrelako aldaketa aurten?**

Maider Igoa: Kultur astea antolatzen zenean, ekitaldi guztiak aste batean antolatzen ziren. Jendea ez zen baitezpada libratzen ahal egun guziz edo bi gaueetatik behin. Beharbada, gure ekitaldiak mugatzen genituen horrengatik. Asteburuetan antolatuz, berriz, iruditu zitzaigun jende gehiagori irekiko genizkiela gure ekitaldiak. Horrengatik, lau asteburutan iraganen da aurten euskal kulturaldia.

Antton Harinordoki: Bestalde, guretzako errazago zen, lana estaliago zen. Dena aste batez antolatuz, azken astea latza zen; Nafarroaren Eguna pasatu eta aste kulturalaren antolakuntzari lotu behar zen, gogorik gabe. Horrelako formularekin, aldiz, denbora gehiago hartzen dugu gauzak hobeto prestatzeko.

■ **Ohiturari jarraikiz, publiko zabala hunkitzeko ekitaldiak antolatu dituzue sail anitzetan?**

Maider Igoa: Bai, funtsezkoa baita denen gustukoa ematea. Euskal antzerkia sartzen ari baita emeki-emeki, Antton Lukuren azken antzerkia ekartzeko asmoa izan dugu. Ekitaldi arrakastatsua izan zen eta ehun bat pertsona bildu ziren lehen igandean *Tu quoque fili*

antzerkia ikusteko. Bestalde, urte guziz, bada tokiño bat bertsolarientzat, dela bertso afari, dela bertso saio edo bertso kantaldi aurten bezala. Xabier Amuriza izan da gure aurtengo gomita, eta Xalbadorren bertsoak abestu zituen joan den larunbatean, Alduden. Bestalde, mugimendu bat sortu da azken urteotan, hala nola Baigorriko bertso eskolarekin. Bertsolarigaiak entzuteko aukera izanen dugu Nafarroaren Egunean eta bertso saioa eskainiko dute goizeko mezetatik landa.

Antton Harinordoki: Hau-

rrek ere beren txokoa dute kulturaldian. Hasieratik, hitzordu berezia antolatzen dugu kantonomenduko haurrak biltzeko. Lehen aldikotz, Haurren Eguna Alduden iragan da, Urxintxenean elkarte berriaren laguntzarekin. Egoitza, ordenadoreak eta materiala eskaini dizkigute, euskarazko animazioak antolatzeko.

Gazteentzat ere iraultze txiki bat egin dugu rock kontzertu bat antolatuz, aspaldiko partez, larunbat arratsean. Urte guziz, rock kontzertua antolatzeko ideia pausatzen da, gazteak biltzeko Nafarroaren Egunean bezperatik. Alabaina, hainbat arrazoi zirela-eta ez zen egiten eta gauza klasikoagoak antolatzen ohi ziren. Aurten, rock kontzertua antolatzera saiatu gara, eta hitzordua larunbat arratsean finkatu dugu Eten Gabe, Mokoka eta Hats taldeekin.

■ **Nafarroako harreman sozio-ekonomikoak ere ikertuko dituzue apirilaren 30ean?**

Maider Igoa: Iaz Orreaga akordioa izenpetu genuen eta haren ildoari jarraikiz antolatu dugu eztabaida hori. Interesgarria iruditu zitzaigun ikertzea nola gauzatzen diren harremanak, zer leku uzten diegun egu-

neroko bizian. Horrengatik, bi aldeetako kargudun ekonomikoak gonbidatu ditugu; trukeak bultzatzeko aukera izanen da.

■ **Orreaga hitzarmenari dagokionez, zertan dira Nafarroako elkarten arteko harremanak?**

Antton Harinordoki: Manifestua gauza sinbolikoa zen. Hala ere, arrakasta ukan du eta jende anitzek sinatu du azkenean, uste baino jende gehiagok. Ipar Euskal Herrian gehienbat elkarteak bildu dira, eta Hego Euskal Herrian aski zabalki onartua izan da. Gaur egun, federazio bat muntatzen ari da, Nafarroa kontuan hartuz bere osotasunean. 40 elkarte biltzen gara, gehienak Hego Euskal Herrikoak, eta hainbat gauza antolatu ditugu. Esaterako, akordioa Nafarroan San Frantzisko Xabierren egunean izan zen aurkeztua. Bestalde, Nafarroaren historiari buruzko erakusketa bat antolatu dugu. Laster estreinatuko da Nafarroan, eta ondotik Baigorri ekarriko dugu, baita Nafarroa Behereko hainbat herritar ere. Azkenean, Orreagari esker, elkarten arteko informazio trukatzeko sendotu dugu.



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Jauregitarren demokrazia

Honezkeror inor ez zen harrutuko, ez baita lehenengo aldia eta ez da izango azkenengoa. Urteotan hitzegin digute demokrazia, eta lubaki bitxi eta handi bat eraiki nahi izan zuten demokrazia eta bortitzen artean. Azken hauen ezaugarri nagusia, borroka armatuari nolabaiteko sustengua emateaz gain, bere izaera ez-demokratikoa zela errepikatu ziguten behin eta berriz.

Denborak gauza guztiak bere lekuan jartzen ei ditu eta gurean ere hala ari dela gertatzen ematen du. Adibideak ugari eta nonahi: dela lizarratarren izaera biolento berria, dela kurduen bilkura eragotzi nahi izatea. Azken gertaeren aurreko hainbat jarrerak argigarri ari dira izaten eta, susmatzen genuen bezala, demokrataren izenpean edozein animalia mota ezkutatu ahal dela ikusten ari gara.

Egoera orokor honen baitan UPNren jarrerak eredarriak ari dira izaten zentzu guztietan. Betidanik entzun izan diegu nafar petorik badago haiek direla, beste ezereen gainetik Nafarroa eta honen baitan gordetzen den izaera berezi eta bakarra defendatzen dutela. Eta maiuskulaz: Nafarroako INSTITUZIOAK. Kanpoko inbasoreen kontrako gotorlekurik seguruenak omen, eta, haien defentsan, diskurtso luze, aspergarri eta gustu txarrekoak entzuteraz ohitu egin gara.

Nafarren borondateari errespetua. Zenbat aldiz errepikatu dute halakorik? Urrunegi joan gabe, lehengo astean berriro erakutsi ziguten zein den parlamentu baten lanari dioten begirunea, non geratu den herritarren borondatearekiko errespetua. Zein den jauregitarren demokrazia duten ideia.

Irrati lizentzien inguruko Parlamentuaren erabakiari egindako trufa larria da. baina kate luze honen barruan beste bat izan da. Eta oso kezkatzekoa da berriro ere Parlamentuaren lanari erakutsi dioten mespretxua, gainera harrokeria galanta erakutsiz. Oso kezkatzekoa diot, ezin baitut imajinatu zer gerta daitekeen gehiengoak euren txiringitoitik alde egitea erabakitzen duen egunean zer egingo duten demokrazia hauek.

KONTZERTUAK

► **Lizarrak:** Jabier Muguruzak kontzertua emango du gaur Lizarrako kontserbatorioan 20:00etatik aurrera.

► **Iruñea:** Les Elements hirukote italiarrak Haendel, Couperin eta Philidorren piezak eskainiko ditu gaur Iruñeko katedralaren Rococó sakristian. 20:00etan.

► **Mendabia:** Xabaltx taldekoek bere azken diskoa aurkeztuko dute bihar 19:30etan. Mendabiako kultur asteko ekitaldi hau Udal aretoan izanen da.

► **Zangoza:** Quinteto Clasico taldeak Arriaga, Mozart, Zalba eta Zabalzaren lanekin kontzertua emango du bihar, 20:30etan, Carmengo Auditorium-ean.

► **Barañain:** Barañaingo koralk Done Jakueren bideko ipuin, kondaira eta musika ikuskizuna eskainiko du datorren ostegunean Kultur etxeko erakustaretoan, 20:00etan.

ZINEMA

► **Tafalla:** Datorren asteartean eta ostegunean *Lulu on the bridge* Paul Auster idazle eta zinemagilearen pelikula pantailaratuko da 20:00etan eta 22:30etan. Bihar, berri, 18:00etan, eta etzi 17:30etan, *La tribu de los Krippendorf* eskainiko da haurrendako. Emanaldi guztiak Cinema Españolen izanen dira.

ERAKUSKETAK

► **Tafalla:** Datorren asteazkena arte F. Javier Etaio Tasio-ren marrazki erakusketa ikus daiteke.

► **Zangoza:** *Imágenes de una peregrinación; ruta Jacobea* erakusketa ikus daiteke maiatzaren 2a arte. Bertan, Donejakue bidean hartutako hainbat irudi bista daitezke.

gure aukerak

BESTELAKOAK

► **Mendabia:** Mendabiako IKA euskaltegiak antolaturiko kultur astearren barne Txan magoarekin magia ikuskizuna gaur arratsaldeko 17:30etan. Bihar 18:00-etan dantza erakustaldia izanen da Lantziegoko Iradier Salaberri dantza taldearekin eta igandean Herri Kirol saioa Nafarroako federazioak antolatuta, 13:30etatik aurrera.

► **Leitza:** Txirringaren aienean' liburua aurkezpena-gaur Leitza liburutegian Amaia Elosegi eta Ester Mugerza egileek, 19:30etan.

► **Urrutz:** Bihar 21:00etan bertso afaria Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikanorekin.

► **Baigorri:** Nafarroaren Eguna-ren barruan, Bittor Elizagoienek, Fermin Mihurak eta Lakkak bertso saioa eskainiko dute igandean.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



A túa filla xa será unha moza. ¿eh?

Hire alaba neska ederra izan da, he?